

Asmo-adierazpena

Gender Power lantaldea

REScoop.eu energia sortzeko herritarren kooperatiben federazio europarrak:

- ❖ adierazten du klima-aldaketak gure ongizatea eta baita gure biziraupena ere arriskuan jartzen dituela;
- ❖ sinetsita dago gure gizartearen ongizatea lortzeko demokratikoki kontrolatutako eredu % 100 berriztagarri baterako trantsizioa egin behar dugula;
- ❖ adierazten du etorkizuneko sistema energetiko iraunkor eta erresilienterako trantsizioak ezin duela «inor atzean utzi»;
- ❖ positiboki baloratzen du energia garbiaren gaineko paketeak herritarrak eta komunitate energetikoak trantsizio energetikoaren erdigunean kokatu izana, haien rola onartzea;
- ❖ garapen jasangarriko helburuekin (GJH) bat egiten du: genero-berdintasuna eta emakume zein neska guztien (aniztasuna kontuan hartuta) ahalduntzea bultzatzeko 5. GJH, eta herritar guztiak energia eskuragarri, fidagarri, iraunkor eta modernoa eskuratu ahal izateko 7. GJH;
- ❖ adierazten du energia-kooperatibek justizia sozialaren eta garapen komunitarioaren ikuspegi zabalagoa dutela oinarri;
- ❖ jakinaren gainean dago aldaketa holistikoak behar direla sistema energetiko iraunkor baterako trantsizioa egiteko, lehendik dauden gizarte- eta antolamendu-egitura bidegabeak desegin behar direla, diskriminazio- eta menpekotasun-jarrerak baztertu behar direla eta beste kultura, egitura eta ohitura alternatibo batzuk sortu behar direla.
- ❖ oinarrian hainbat desberdintasun (betidanik emakumeen eta gizonen artekoa) dituen gizarte-erakuntza gisa ulertzen du generoa, eta, aldi berean, adierazten du genero-rolak denbora igaro ahala aldatzen direla;
- ❖ onartzen du gizartean, oro har, gauza asko gelditzen direla egiteko rol estereotipatuetan edo genero jakin batzuen gutxiagotasunaren edo nagusitasunaren ideian oinarritzen diren aurreiritzi eta ohitura guztiak desagerrarazteko, eta herritar guztiak haien potentzial osoa garatzeko aukera berberak emateko.

Hortaz, adierazpena sinatzen duten pertsonen xede nagusia hau da:

"Gure helburua da trantsizio energetiko justu bat egiten laguntzea, genero guztietako pertsonen, trantsizio energetikoaren eragile eta onuradun aktibo gisa, baldintza beretan parte hartzea bultzatuz, hori herritar guztien bizi-kalitatearen hobekuntzan islatuko bailitzateke".

Generoari dagokionean bidezko trantsizio energetiko bat sustatzen laguntzeko, adierazten eta azpimarratzen dugu energia-kooperatiba guztiek eta beste eragile batzuek hauxe egiteko erantzukizuna dutela:

- ❖ energia-**kooperatiben izaera demokratiko eta integratzailea mobilizatzea**, energian interesa duten alderdi guztien interesei eta beharrei erantzuteko, alderdi horiek talde heterogeneo bat osatu dezaten;
- ❖ sektore energetiko komunitarioan emakumeen eta **genero guztietako pertsonen ahotsak, aurpegiak, beharrak eta interesak onartzea** eta jakitera ematea;
- ❖ **genero-desberdintasunak** sistema energetikoan, oro har, eta komunitate energetikoetan, zehazki, duen inpaktua **ikusgai egitea eta** horren gainean **sentsibilizatzea**;
- ❖ **emakumeak eta pertsona ez-bitarrak diskriminatzen dituzten** araudi, ohitura, egitura eta jardunak **aldatzeko edo indargabetzeko baliagarriak diren neurri guztiak** hartzea, baita berariazko neurri politikoak ere;
- ❖ **genero-ikuspegia** jarduera-eremu guztietan txertatzea.

Energia-kooperatibek printzipio horiek hainbat jarduera egiaztagarriren bidez gauza ditzakete, besteak beste:

- ❖ **generoa aintzat hartzen duen lengoia**, hau da, genero-berdintasuna islatzen duen hizkuntza, erabiltzea, eta **baita grafikoak eta irudiak ere**, barne- zein kanpo-komunikazio kanal guztietan;
- ❖ **estatutuetan** genero-justiziaren eta **genero-berdintasunaren** printzipioak sartzea, oraindik sartuta ez badaude, eta **berariazko politiken** bidez eta beste baliabide batzuen bidez (adibidez, prestakuntza, aurrekontuak, eta abar) printzipio horiek gauzatzen direla bermatzea;
- ❖ **egiturazko berrikuntzak** egiteko eta aukera-berdintasuna bermatzeko jardueretan parte hartzea, **genero guztietako pertsonen parte-hartzea sustatzeko** (bereziiki gobernu-organoetan) neurri onuragarriak hartzea, eta berdintasuna bultzatzen duten mentalitatea eta kultura sortzea;
- ❖ **datuak** (adinaren, sexuaren, profil sozioekonomikoaren eta beste hainbat adierazle aproposen arabera banakatuta) **aldizka biltzen, aztertzen eta aurkezten** laguntzea, datu horiek erakunde barruko politikak eta programak sortzeko, planifikatzeko, exekutatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko erabiltzearen.
- ❖ **aldi baterako neurri bereziak hartzea**, hala nola kuotak edo deskontu bereziak, genero guztien izatezko berdintasuna azkartzeko. Neurri horiek ezin dira diskriminatzailetzat jo, aukera- eta tratu-berdintasunaren helburuak lortzen direnean bertan behera geratu beharko baitira.

Horrez gain, adierazten dugu honako jarduera hauek funtsezkoak direla genero-kontzientzia eta berdintasunerako aurrerapena azkartzeko:

- ❖ genero guztietako pertsonentzako eta **emakumeentzako tutoretza-programa transnazional** bat sustatzea, prestakuntza eta birziklapen formal zein ez-formal mota guztiak barne hartzen dituen, gaitasun sozial, organizatibo, tekniko eta politikoak hobetzeko;
- ❖ generoaren arloko ikaskuntza- eta ikerketa-zentroak, instituzio akademikoak eta hezkuntza-erakundeak, gobernu kanpoko erakundeak, bereziki emakumeen elkarteak eta pertsona LGBTQIA+/ez-bitarren elkarteak, eta baita gizarte zibileko beste eragile guztiak ere inplikatzeko, **genero-analisiaren ezagutza indartzeko, generoaren auzia aintzat hartzen duten ikerketa-adierazleak eta -metodologiak sortu eta probatzeko**, eta funtzionamendu orokorrean genero-berdintasuna lortzeko egindako aurrerapausoak gainbegiratzeko eta ebaluatzeko.
- ❖ genero-desberdintasunaren eta pobrezia energetikoaren aurka lan egiten duten tokiko, eskualdeko, estatuko eta nazioarteko **sareak mapatzea eta konektatzea, ekonomia sozial eta solidarioko** ekimen eta erakundeak barne.

Demokrazia energetikoaren printzipioekin bat, aniztasuna onartzen dugu eta herritarren behar eta nahi anitzak aintzat hartzen ditugu. Desahalduntzea eragiteko aurkako efektua izaten dezakeen "emakumeen ahalduntzearen" ikuspuntutik harago joan nahi dugu. Horregatik, **generoari dagokionean bidezko komunitate energetikoak sortzeko behar diren aldaketa kultural eta estrukturaletan** jartzen dugu arreta eta, aldi berean, ager daitezkeen bidegabekeria berrien aurreko ikuspegi kritiko eta gardena mantentzen dugu.

Gure aburuz, trantsizio energetiko jasangarri eta justu batean, denok dugu rol bat jokatzeko eta egungo bidegabekeriaren eta ohitura jasangaitzen aurka hitz egiteko eta jarduteko erantzukizuna. Bestetik, uste dugu banakako ekintzak, azken batean, ahalegin sistemikoekin konektatuta egon behar direla.

Ondorioz, hitzematzen dugu:

- ❖ gure Estatutuetan genero-berdintasunaren gaineko klausula bat sartuko dugula 2023 baino lehen, edo ahalik eta azkarren;
- ❖ gure gobernu-organoen osaeran genero-berdintasunaren printzipioa beteko dugula 2023 baino lehen, edo hurrengo administrazio-kontseiluetan eta kontseilu exekutiboetan, eta;
- ❖ gure ahaleginak generoari dagokionean atxikimendu justu eta orekatua lortzera bideratuko ditugula 2030 baino lehen.

REScoop.eu federazioko kide guztiek sinatu dezakete asmo-adierazpen hau. Zure erakundeak sinatu nahi badu, jar zaitez harremanetan Antonia Prokarekin:

antonia.proka@rescoop.eu